



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko irailaren 12a

108. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—9.000 biztanle baino gehiagoko udalei eginiko gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio-txostena,  
Kontuen Ganberak egin (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**9.000 biztanle baino gehiagoko udalei eginiko gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 3an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak 9.000 biztanle baino gehiagoko udalei eginiko gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko irailaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**9.000 biztanle baino gehiagoko udalei eginiko gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Datu orokorrak (4. or.).
- III. Helburua eta norainokoa (6. or.).
- IV. Konklusioak eta gomendioak (7.or.).
  1. eranskina (10. or.).

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin eta 2018rako jarduketa-programarekin bat etorritik, 9.000 biztanletik gorako udaletako gomendioen jarraipenari buruzko txostena egin du.

Autonomia erkidegoetako kanpo kontroleko organoei buruzko araudiak azpimarratu egiten du, oro har, garrantzitsua dela fiskalizazio txostenetan gomendioak ematea, sektore publikoaren kudeaketa hobetzen lagunduko dutenak, eta gero jarraipen egokia egitea gomendio horiek noraino betetzen diren ikusteko. Kontuen Ganberak, bere 19/1984 Foru Legean, berariaz jaso ditu oinarri horiek.

Halaber, bai sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipio eta arauak, bai ISSAI-ES arauen georagoko esparruak eta haiek garatzeko onetsitako gidek aurreikusten dutenez, txosten bateko gomendioen jarraipenak hiru helburu nagusi ditu:

- Auditoria txostenen eraginkortasuna handitzea.
- Legeak eta aurrekontuak egiten dituzten agintariei laguntzea.
- Ezagutzak eta kudeaketa-jardunbideak hobetzeko pizgarriak sortzea.

Ganbera honek aldiari behin fiskalizatzen ditu 9.000 biztanletik gorako udalak. Urteko txosten bakoitzean kudeaketa-arlo guztietako gomendioak jasotzen ditu, bai eta gomendio horien jarraipena ere, aurreko ekitaldiari dagokionez. Fiskalizatutako azken ekitaldia 2015ekoa da, Tuterako Udala salbu, berari 2016an egin baitzitzaion azken fiskalizazioa.

Lan hau egitean, ez da Iruñeko Udala sartu, urtero egiten zaiolako fiskalizazioa eta bertan berariaz jasotzen delako gomendioen jarraipena.

Lana auditoriako bi teknikaririk eta auditore batek osatutako lantaldeak egin du, 2018ko martxotik apirilera, Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren xede diren udalei eta Ganbera honek egindako gomendioen egoera orokorrari buruzko datu orokorrak ematen dira; hirugarren atalean, lanaren helburuak eta norainokoa adierazten dira; eta laugarren eta azken atalean, ateratako ondorioak azaltzen dira.

Jarduketa honen emaitzak 9.000 biztanletik gorako 11 udaletako alkateei jakinarazi zitzaizkien, kasua bazen egokitzen jotzen zituzten alegazioak aurkez zitzaizkien, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Epea iraganda, ez dute alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udaletako langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzaren-gatik.

**II. DATU OROKORRAK**

Hauek dira 9.000 biztanletik gorako Nafarroako udalak:

Udala	Biztanleria*
Iruña	197.138
Tutera	35.298
Eguesibar	20.417
Barañain	20.124
Burlata	18.591
Zizur Nagusia	14.686
Lizarra	13.707
Antsoain	10.752
Tafalla	10.638
Aranguren	10.239
Atarrabia	10.217
Berriozar	9.874

\* Data: 2017ko urtarrilaren 1a; iturria: www.ine.es

Ganberak azken ekitaldian egindako fiskalizazio lanetan gomendio orokorren xede izan diren kudeaketa-arloak eta gomendio nagusiak honako hauek izan dira:

**AURREKONTU OROKORRA**

- *Kasuan kasuko ekitaldia hasi baino lehen onestea aurrekontu orokorra.*

**INBENTARIOA, ETA HORREK IBILGETUAREKIN DUEN LOTURA**

- *Ondasun eta eskubideen inbentario gaurkotu bat onestea; hura kontrolatu eta artxibatzeke sistema bat ezartzea, geroago hura bateratzeko kontabilizatutako ibilgetuarekin.*

**LANGILEAK**

- *Plantillako lanpostu hutsen aldi baterako izaera aztertzea, eta lege- eta aurrekontu-xedapenek horretarako bidea ematen dutenean, lanpostuen deialdiak egitea, langileen kontratu egonkorren bidez artatzeko Udalaren egiturazko jarduera eta zerbitzuak.*

**KONTRATUAK**

- *Lizitazio berriak prestatzea aurrekoen muga-egunak kontuan hartuta*

**DIRU-LAGUNTZAK**

- *Diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat eta haiei buruzko ordenantza onestea.*

**DIRU-SARRERAK**

- *Kobratzeko dauden saldoak kudeatzeko prozedurak berrikustea.*
- *Balorazio-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera berrikustea.*

## HIRIGINTZA

- *Planeamendua 35/2002 Foru Legearen arabera egokitzea*<sup>1</sup>
- *Lurzoruaren Udal Ondarea eratzea eta kudeatzea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, eta Udalaren Lurzoru Ondarearen Erregistroa sortzea.*

Adierazi beharra dago gomendioak berehala aplikatzea baldintzatu dezaketen legezko murrizketak eta/edo kanpo faktoreak daudela bi arlotan:

- Langileen arloan, aztertutako aldia aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiaren eraginpean egon delako eta nahitaez bete beharreko<sup>2</sup> murrizketak ezarri direlako; hori dela eta, enplegu publikoko lanpostuak eskaintzeko gaitasuna mugatua izan da.
- Hirigintza planeamenduan, administrazio-prozesu luzea eta konplexua delako eta, gainera, beste erakunde publiko batzuek ere horretan parte hartzen dutelako.

Udal guztientzat modu errepikakorrean egindako gomendio orokorrez gain, badira bestelako gomendio berariazkoak, modu errepikakorrean egiten ez direnak, aldi bakarrean baizik, eta udal bakar bati eragiten dietenak.

<sup>1</sup> Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak indargabetutako esparru juridikoa.

<sup>2</sup> Abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege Dekretua, defizit publikoa murrizteko aurrekontu, zerga eta finantza arloko premia-azko neurrien gainekoa, eta 2012., 2013., 2014. eta 2015. urteetako ekitaldietarako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeak.

### III. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Honako hauek dira lan honen helburuak:

- Ganbera honek 2011ko ekitalditik 2015eko ekitaldira (9.000 biztanletik gorako udalei auditoria egin zitzaien azken ekitaldia) bitartean emandako gomendioak 2017ko ekitaldian noraino bete diren egiaztatzea<sup>3</sup>.

- Hartu diren edo ezarpen fasean dauden neurri guztiak aztertzea.

Helburu horiek lortzeko, bi fasetan egin da lana:

1. fasea: Udaleko arduradunei galdera sorta igorri zitzaien, 2015eko ekitaldian Ganbera honen txostenek zekartzaten arlokako gomendioekin. Gomendio horietako bakoitzerako, aukera hauek jarri ziren:

- Beteta
- Bete gabe
- Iruzkina eta/edo oharrak

2. fasea: Erantzunak justifikatzen zituen euskarri dokumentala egiaztatzea.

Azterketa hori egiteko, lan honen norainokoan sartuta dauden udalek eman diguten informazioaz bakarrik baliatu gara eta huraxe egiaztatu dugu.

Gomendioak izendapen hauen arabera sailkatu dira:

- Bere osoan edo funtsean aplikatua: fiskalizatutako enteak zuzentze-neurriak hartu ditu, zentzuzkoak eta neurrikoak haren eskumenen eremuan, bide ematen dutenak uste izateko gomendioak eragina izan duela eta garrantzizko arazo bat ere ez dela konpondu gabe gelditu. Horrelakotan, gomendia zentzuz bete dela ulertuko da.

- Partzialki aplikatua: fiskalizatutako enteak aintzat hartu ditu gomendioak, eta jarduketak egin ditu agerian jarritako akatsak, ahuleziak edo gabeziak zuzentzeko, baina hastapenetan, zati batean edo alderdi batzuetan bakarrik egin ditu, eta, ondorioz, ezin da pentsatu gomendia zentzuz bete denik.

- Aplikatu gabea: fiskalizatutako enteak ez du egin agerian jarritako akatsak, ahuleziak edo gabeziak zuzentzeko jarduketarik, edo egin dituen jarduketak ez dira aski edo ez dira egokiak, eta, horrenbestez, gomendioak aplikatu gabe jarraitzen du.

<sup>3</sup> Ganberak fiskalizatu egin zuen Tuterako Udalaren 2016ko ekitaldia. Lan honetarako, ez dira kontuan hartu ekitaldi horri dagokionez egindako gomendioak; batetik, informazioa gainerako udalekin homogeneizatzeko, eta bestetik, ezin zitezkeelako 2017an bete 2017ko urrian eman genuen txostenean azalduko gomendio guztiak.

#### IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Ganbera honek txosten honen xede diren udalei 2011-2015 aldirako eman zizkien gomendioak azaltzen dira 1. eranskinean, eta gomendio horiek, egindako lanetik ondorioztatzen denez, 2017an noraino bete diren baloratzen da. Emaiza hauek lortu ditugu:

- Udalen 2017ko betetze mailak eta txostenaren III. atalean zehaztutako irizpideei jarraituz egin zaien sailkapena honako taula honetan islatu dira:

Udala	Gomendioen kopurua*	Osoan edo funtsean aplikatuak	%	Partzialki aplikatuak	%	Aplikatu gabek	%
Antsoain	5	2	40	2	40	1	20
Aranguren	3	1	33	1	33	1	33
Barañain	10	1	10	1	10	8	80
Berriozar	4	-	0	1	25	3	75
Burlata	13	7	54	4	31	2	15
Eguesibar	7	1	14	-	0	6	86
Lizarra	10	2	20	2	20	6	60
Tafalla	8	-	0	7	88	1	13
Tutera	9	1	11	3	33	5	56
Atarrabia	7	2	29	2	29	3	43
Zizur Nagusia	5	4	80	-	0	1	20

\* Udal bakoitzaren gomendioen kopuruan, baliteke txosteneko II. atalean adierazitako gomendioen tipologia errepikatzea edo, bestela, bereiztea, beste udal batzuetan egindakoen aldean.

- 2017ko batez besteko betetze maila lortzeko, udal guztien ehuneko batezbestekoa kalkulatu da, eta hauek dira emaitzak:

	Osoan edo funtsean aplikatuak	Partzialki aplikatuak	Aplikatu gabek
Batez besteko ehunekoa	26	28	46

Beraz, osoan edo partzialki aplikatutako gomendioak ehuneko 54 dira, eta aplikatu gabekoak gutxiago dira, ehuneko 46.

- Aplikatu gabeko gomendioen portzentajea 2015. urtera arte ehuneko 91 izan zen. 2017. urtearen amaieran, aplikatu gabeko gomendioak ehuneko 49 gutxiago izan dira.
- Aplikatu gabeko gomendioen sailkapenean, gomendio orokor eta errepikakorrak eta udal batentzako unean uneko gomendio berariazkoak bereizi dira. Ehuneko hauek atera dira:

Aplikatu gabeko gomendioak	Ehunekoa
Orokorrak eta errepikakorrak	58
Berariazkoak eta ez errepikakorrak	42
Guztira	100

Aplikatu gabeko gomendio orokor eta erreplikakorrak hauek dira:

Aplikatu gabeko gomendioak	Udalen kopurua
<b>Langileak</b>	
Plantillako lanpostu hutsen aldi baterako izaera aztertzea, eta lege- eta aurrekontu-xedapenek horretarako bidea ematen dutenean, lanpostuen deialdiak egitea, langileen kontratu egonkorren bidez artatzeko Udalaren egiturazko jarduera eta zerbitzuak	4
<b>Diru-laguntzak</b>	
Diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat eta haiei buruzko ordenantza onestea	3
<b>Hirigintza</b>	
Lurzoruaren Udal Ondarea eratzea eta kudeatzea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, eta Udalaren Lurzoru Ondarearen Erregistroa sortzea	3
Planeamendua 35/2002 Foru Legearen arabera egokitzea <sup>4</sup>	2
<b>Ibilgetua eta inbentarioa</b>	
Ondasun eta eskubideen inbentario gaurkotu bat onestea; hura kontrolatu eta artxibatzeko sistema bat ezartzea, geroago hura bateratzeko kontabilizatutako ibilgetuarekin	2
<b>Aurrekontu orokorra</b>	
Kasuan kasuko ekitaldia hasi baino lehen onestea aurrekontu orokorra	2
<b>Kontratuak</b>	
Lizitazio berriak prestatzea aurrekoen muga-egunak kontuan hartuta	2
<b>Diru-sarrerak</b>	
Balorazio-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera berrikustea	1

**Azken batean**, ikusten da bilakaera positiboa izan dela Ganbera honek bere fiskalizazio txostenetan egindako gomendioak aintzat hartu eta, beraz, aplikatzeari dagokionez; hala ere, uste dugu hori ez dela aski, egindako gomendioetatik ia-ia ehuneko 50 utzi baitira bete gabe 2011ko ekitalditik hona.

Egindako azterketari erreparatuta nabarmentzen dugu zenbait udalek inbentarioa kudeatzeko eta kontabilitatearekin lotzeko programa informatiko bat dutela, ANIMSA SAK<sup>5</sup> egina eta Nafarroako Gobernuak diruz lagundua. Egiaztatu dugu datuen tratamenduan arazoak daudela, eta oraingoz arazo horiek informazioa egoki kudeatzea eragozten dutela.

Hala ere, txosteneko II. atalean adierazi den bezala, kontuan hartu behar da langileen eta hirigintza-aren arloetan legezko murrizketek eta/edo kanpoko faktoreek baldintzatu eta atzeratu dezaketela Ganbera honek egindako gomendioen berehalako gauzatzea; uste dugu kanpoko baldintzatzaile horiek ez dietela eragiten gainerako arloei, hau da, ibilgetuari eta inbentarioari, diru-laguntzei, kontratazioari eta aurrekontuari.

*Beraz, azaldutako horren arabera, Ganbera honek berriz adierazten du komeni dela gomendioak aplikatzeko behar diren neurriak hartzea, agerian geratu diren akatsak zuzenduz; horrek guztiak kudeaketa publikoaren hobekuntza ekarriko du.*

<sup>4</sup> Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak indargabetutako esparru juridikoa.

<sup>5</sup> Udal sozietate publikoa; Iruñeko Udalak ehuneko 77,79ko partaidetza du, eta gainerakoa zenbait udalen artean banatzen da.



Miguel Ángel Aurrecoechea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2018ko uztailaren 2an

Lehendakaria,  
Asunción Olaechea Estanga

**1. ERANSKINA**ANTSOAIN

Zk.	Alderdi orokorrak	2011	2012	2013	2014	2015	2017		
							Aplikatua	Partzialki aplikatua	Aplikatu gabea
1	Udal ondasunen inbentarioa onestea, eguneratze eta kontabilitate-jarraipen etengabeak bideratuko dituzten prozedurak diseinatuta.	X	X	X	X	X		X	
	Langileak								
2	Plantilla organikoan sartuta dauden lanpostuak arazoizkotasunez bete diren aztertzeko prozesua osatzea, hura benetako premietara egokitzen dela egiaztatuta ahal izateko	X	X	X	X	X		X	
3	Udalaren lan-baldintzei buruzko akordio 10. artikulua Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuan nahiz gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakora egokitzea, batez ere jaiegun zer diren zehazteari dagokionez	X	X	X	X	X			X
	Diru-sarrerak								
4	Behar diren kudeaketak egitea ordaintzeko dauden saldoak kobratzeko, batez ere zaharrenak, zeren eta saldoaren % 45 baita 2009koa eta lehenagokoa	X	X	X	X	X	X		
	Hirigintza								
5	Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela, izaeraz	X	X	X	X	X	X		

ARANGUREN

Zk.	Alderdi orokorrak	2014	2015	2017		
				Aplikatua	Partzialki aplikatua	Aplikatu gabea
1	Plan ekonomiko-finantzario bat egitea		X	X		
	Hirigintza					
2	Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitze prozesua osatzea	X	X		X	
	Diru-laguntzak					
3	Diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat taxutzea eta haien buruzko ordenantza orokorra onestea	X	X			X

**BARAÑAIN**

Zk.	Alderdi orokorrak	2011	2012	2013	2014	2015	2017		
							Aplikatua	Partzialki aplikatua	Aplikatu gabea
1	Udal programaren kudeaketan mendetasun bikoitza edukitzeak aukera emanen luke antolamendurako, koordinaziorako eta kontrolerako, kirolera bideratzen diren baliabide publikoak optimizatzeko aldera				X	X			X
2	Kirol jardueren finantzaketarako plan bat egitea, non helburuak, eraginak, aurreikuspenak diren kostuak eta baliabideen aurreikuspena jasoko diren; horrek aukera emanen du kirolaren kudeaketan kontrol eta koordinazio handiagoak izateko				X	X			X
3	Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok egon behar du barne-kontrol ekonomikoaren eta legezkoaren mende	X	X	X	X	X		X	
4	Udal inbentarioa onartzea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta bajen jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emanen duena	X	X	X	X	X			X
	<b>Langileak</b>								
5	Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla egiazko premietara egokitzen den egiaztatzea	X	X	X	X	X			X
	<b>Kontratazioa</b>								
6	Esleipen-prozedura berriak hasteko kontratazio araudian ezarritako iraupen-muga gainditzen denean				X	X	X		
	<b>Diru-sarrerak</b>								
7	Balorazio-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasuaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera berrikustea	X	X	X	X	X			X
	<b>Hirigintza</b>								
8	Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzea	X	X	X	X	X			X
9	Lurzoruaren Udal Ondarea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik kudeatzea, lursaileri eta eskudiruari dagozkien sarrerak eta irteerak erregistratuz.	X	X	X	X	X			X
	<b>Fundazioa</b>								
10	Fundazioaren urteko kontuak Udalaren kontu orokorrari erantsia, eranskin gisa gutxienez	X	X	X	X	X			X

**BERRIOZAR**

Zk.	Alderdi orokorrak	2011	2012	2013	2014	2015	2017		
							Aplika- tua	Partzialki aplikatua	Aplikatu gabea
1	Fidantzen saldo zaharrak aztertzea eta, hala bada-gokio, erregularizatzea			X		X			X
2	Udalaren kontingentziak oroitidazkian sartzea					X			X
	<b>Hirigintza</b>								
3	Udal Plan berria idazteko prozesua behingoz buka-tzea	X	X	X	X	X		X	
	<b>Enpresa publikoa</b>								
4	Enpresaren kudeaketaren esparru juridikoa argitzea, modu zehatzagoan erregulatuz egindako enkargua-ren araubide ekonomiko-finantzarioa eta errenta-menduaren figuraren erabilera saihestuz, zeharkako kudeaketarako modu gisa				X	X			X

**BURLATA**

Zk.	Alderdi orokorrak	2011	2012	2013	2014	2015	2017		
							Aplikatua	Partzialki aplikatua	Aplikatu gabea
1	Erakunde autonomoen estatutuak osatu eta gaurkotzea eta erakunde horien autonomia maila eta Udalaren kontrola haietan jasotzea	X	X	X	X	X			X
2	Udal ondasunak —jabari publikokoak, ondarekoak eta herri-ondasunak— eskriturretan jaso eta erregistratzeko prozesua burutzea	X	X	X	X	X		X	
3	Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea	X	X	X	X	X		X	
4	Udalarentzako diru-sarrerak ekar ditzaketen jardueren (lizentziak, tasak...) gaineko kontrol- eta ikuskapen-prozedurak ezartzea	X	X	X	X		X		
5	Diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra onestea	X	X	X			X		
6	Kontu Orokorra osatzea, eranskin gisa Ripaberri Desarrollo Urbano SL eta Erripagaña Desarrollo Urbano SL sozietateei buruzko datuak ere jasoz	X	X	X	X		X		
7	Aurrekontua indarreko legediak ezarritako epeetan onestea, Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzariorako tresna gisa erabili ahal izateko	X	X	X	X	X	X		
	<b>Langileak</b>								
8	Plantilla onestea eta plantilla organikoa premia errealean arabera egokitzeko azterketa-prozesua osatzea	X	X	X	X	X		X	
	<b>Kontratazioa</b>								
9	Kontratua amaitua duten kontratazioak lizitatzea				X	X		X	
	<b>Diru-sarrerak</b>								
10	Isunak kudeatzeko prozedura osatzea, kobratzeko dauden zenbatekoiei dagokienez	X	X	X	X	X	X		
	<b>Hirigintza</b>								
11	Udalak diseinatzea eta aplikatzea Udalaren kapitaliko sozietateei, jarduera orotan, ezarri beharreko finantza- eta eraginkortasun-kontrolerako prozedura juridiko eta teknikoak	X	X	X	X		X		
12	Sozietateak jarduteko plan bat egitea, zeren eta ustiaketa emaitza negatiboa izan baita. Diru-sarrerak eta gastuak direla eta aurreikusten den bilakaerari erreparatuta, ez da aurreikusten epe laburrean joera-aldaketarik egonen denik				X	X			X
13	Erripagaña Desarrollo Urbano SLren kontuak Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen kontuekin bateratuta aurkeztea, zeren eta azken hori Erripagañaren akzioen % 51ren jabea baita				X	X	X		

EGUESIBAR

Zk.	Alderdi orokorrak	2011	2012	2013	2014	2015	2017		
							Aplikatua	Partzialki aplikatua	Aplikatu gabea
1	Udalaren aurrekontu orokor eta bakarra epearen barruan onestea	X	X	X	X	X			X
2	Udala bizitzen ari den populazio-igoera dela eta, gaur egungo zerbitzuak ematearen ondorioz nahiz inbertsio berrien ondorioz aldaketa horrek izanen duen eragina balioestea	X	X	X	X	X	X		
	Udal zerbitzuak eskaintzeko hain garrantzitsuak diren obren plangintza eta kudeaketa Udalak berak egin, kontrolatu eta finantzatu behar ditu, gure iritzian	X	X	X	X	X			X
	<b>Langileak</b>								
3	Indarrean den araudiaren testuinguruan, aurrekontu-zuzkidura duten bete gabeko lanpostu guztiak enplegu-eskaintza publikoan sartzea, dagoen aldibaterakotasun maila handia saihesteko	X	X	X	X	X			X
	<b>Diru-laguntzak</b>								
4	Diru-laguntzen plan estrategiko bat egitea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, aurreikusitako kostuak, baliabideen aurreikuspena, eragina eta abar	X	X	X	X	X			X
5	Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egokitasuna aztertzea	X	X	X	X	X			X
	<b>Hirigintza</b>								
6	Udal plan bat egitea, gaur egun dagoena, 1999koa, ordezteko	X	X	X	X	X			X

**LIZARRA**

Zk.	Alderdi orokorrak	2011	2012	2013	2014	2015	2017		
							Aplikatua	Partzialki aplikatua	Aplikatu gabea
1	Udal ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua egitea eta onestea	X	X	X	X	X			X
2	Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea	X	X	X	X	X			X
3	Udal ondasunak —jabari publikokoak, ondarekoak eta herri-ondasunak— eskrituretan jaso eta erregistratzeko prozesua burutzea	X	X	X	X	X	X		
	<b>Langileak</b>								
4	Plantilla organikoa onestea					X	X		
5	Plantilla organikoan sartuta dauden lanpostuak arrazoizkotasunez bete diren aztertzeko prozesua osatzea, hura benetako premietara egokitzen dela egiaztatzea ahal izateko	X				X			X
	<b>Kontratazioa</b>								
6	Kontratuen indarraldiaren gaineko kontrola areagotzea eta garaiz planifikatzea kasuko lizitazio prozeduraren hasiera	X	X	X	X	X			X
	<b>Diru-sarrerak</b>								
7	Zergak, tasak eta zerbitzuetako prezioak kobratzea erraztuko duten metodoak bultzatzea					X		X	
	<b>Hirigintza</b>								
8	Hirigintzako hitzarmenen erregistroa eta artxiboa ezartzea, indarrean den legediak eskatzen duen dokumentazioarekin	X	X	X	X	X		X	
9	Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa eta inbentarioa eratzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, hirigintzari buruzko legedian jasotako helburuei lotuta dagoelako, izaeraz	X	X	X	X	X			X
	<b>Sozietatea</b>								
10	Udal sozietateak jarduerarik ez duenez, erakunde horrek existitu behar duen aztertzeta	X	X	X	X	X			X

**TAFALLA**

Zk.	Alderdi orokorrak	2011	2012	2013	2014	2015	2017		
							Aplika- tua	Partzialki aplikatua	Aplikatu gabea
1	Udal funtzionarioen montepiotik eratorritako bete-behar aktuarialak zenbatestea eta kontabilizatzea	X	X	X	X	X		X	
2	Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotu eta onestea	X	X	X	X	X		X	
3	Inbentarioko altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, haren etengabeko gaurkotzea eta hark kontabilitatean ibilgetuarekin lotura izatea bermatu eta bideratzeko							X	
4	Udalaren ondasunak eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua burutzea, eta bertan adieraztea haien egoera juridikoa eta zertarako erabiltzen ari diren				X	X		X	
	<b>Kontratazioa</b>								
5	Argiteria publikoa berrikusteko eta mantentzeko zerbitzurako behar den kontratazio-prozedura egitea	X	X	X	X	X		X	
6	Muga-egunera heldutako kontratuen lizitazio-prozedura gauzatzea				X	X			X
	<b>Hirigintza</b>								
7	Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzea				X	X		X	
8	Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea	X	X	X	X	X		X	



TUTERA

Zk.	Alderdi orokorrak	2011	2012	2013	2014	2015	2017		
							Aplika- tua	Partzialki aplikatua	Aplikatu gabea
1	Zaharkituta geratu diren ordenantzak berrikusi edo gaurkotzea		X	X	X	X			X
2	Fidantzen saldoaren indarraldia berrikustea eta, kasua bada, hura erregularizatzea	X	X	X	X		X		
3	Fundazioen finantzaketari eta emaitzei dagokienez, honako hauek aztertzea:				X	X			X
	a) Aukeratutakoa ote den biderik egokiena eskaintzen diren zerbitzuak emateko								
	b) Kontuan hartu behar ote diren aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari begira kalkuluak egitean								
	c) Entitate horiei aplikatu behar ote zaien Toki Araubidearen Oinarri buruzko 7/1985 Legeko bederatzigarren xedapen gehigarria, 27/2013 Legearen bitartez sartutakoa, finantza-desorekako egoeran dauden entitatei buruzkoa.								
	<b>Langileak</b>								
4	Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeko	X	X	X	X	X			X
5	Langileen arlorako kudeaketa-sistemak aztertu eta osatzea, bereziki prozedurei eta gorde behar-reko dokumentazioari, aparteko orduei eta gainerrako arloekiko koordinazioari dagokienez				X	X		X	
	<b>Kontratazioa</b>								
6	Kontratuen lizitazio berriak prestatzea aurrekoen muga-egunak kontuan hartuta				X	X		X	
	<b>Hirigintza</b>								
7	Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzekeo prozesua osatzea	X	X	X	X	X		X	
8	Hirigintzako hitzarmenen erregistroa eta artxiboa ezartzea, indarrean den legediak eskatzen duen dokumentazioarekin	X	X	X	X	X			X
9	Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela, izaeraz	X	X	X	X	X			X

**ATARRABIA**

Zk.	Alderdi orokorrak	2011	2012	2013	2014	2015	2017		
							Aplika-tua	Partzialki aplikatua	Aplikatu gabea
1	Udalaren aurrekontu orokor eta bakarra onestea, indarrean dagoen legedian ezarritako epean, kudeaketarako oinarrizko tresna izan dadin	X	X	X	X	X			X
2	Udal inbentarioa gaurkotu eta onestea	X	X	X	X	X		x	
3	Udalaren kontingentziak oroitidazkian sartzea	X	X	X	X	X	X		
4	Fidantzen saldo zaharrak aztertzea eta erregularizatzea	X	X	X	X	X			X
	<b>Diru-laguntzak</b>								X
5	Diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra edo diru-laguntzen modalitateetarako ordenantza berariazkoak onestea	X	X	X	X	X			X
		X	X	X	X	X			X
	<b>Hirigintza</b>								X
6	Hirigintza plan orokor berria behin betiko onestea	X	X	X	X	X		X	
7	Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa eta inbentarioa sortzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraituz	X	X	X	X	X	X		

**ZIZUR NAGUSIA**

Zk.	Alderdi orokorrak	2011	2012	2013	2014	2015	2017		
							Aplika-tua	Partzialki aplikatua	Aplikatu gabea
1	Udalaren aurrekontu orokor eta bakarra legediak ezartzen duen epearen barruan onestea	X	X	X	X	X	X		
2	2015ean udal inbentarioa gaurkotzeko hasitako lanarekin jarraitzea eta hura amaitzea, honako helburu honekin: altak eta bajak kontrolatu eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, zeinak erraztuko baititu inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatean islatutako ibilgetuarekin lotzea	X	X	X	X	X	X		
	<b>Diru-laguntzak</b>								
3	Diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat egitea	X	X	X	X	X	X		
4	Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egokitasuna aztertzea	X	X	X	X	X	X		
	<b>Erakunde autonomoak</b>								
5	Kultura eta kirol patronatuak, zeinek langilerik ez baitute, Udalaren zerbitzu bihurtzeko aukera aztertzea	X	X	X	X	X			X



